

# ereinkaria

Argitaletxearen berriak 2004ko abendua

Tolosa Etorbidea 107 - 20018 DONOSTIA. Tel.: (+34) 943 21 82 11 Fax: (+34) 943 21 83 11  
www.erein.com erein@erein.com


Doako alea, 11. zenbakia

## *Itzalak*

**Barne-ezkutuen argigarri direnean**



## **Gure bizitzako eguneroko kontuak**



## *Datozenak...*

Gazte Literaturako lan nagusiok izango dira berehala liburudendetan:

Anna Frank-en  
*Egunkaria*

Henning Mankell-en  
*Bidaia munduaren amaierara*

Philip Pullman-en  
*Zubi hautsia*

Juan José Fernandez-ren  
*Jack Tellmo*

## ***HAUTSI DA KATEA. Sara izan zen lekuko.*** **Toti Martínez de Lezearen euskarazko lehen eleberria**



*HAUTSI DA KATEA. Sara izan zen lekuko.*  
Toti Martínez de Lezea  
Orr: 302  
Saila: Narratiba saila, 54  
ISBN: 84-9746-214-9  
Neurriak: 13 x 20,5


Sara izan zen lekuko. Iraultzak Lapurdiko biztanleen bizimodua gobernatzen zuen Biltzar Nagusia ezabatu zuen; Foruak kendu zizkien kontinenteko euskal lurraldeei, eta, haiek nahi gabe ere, Biarnorekin lotu zituen. Hainbat herri "zitaltza" jo, eta herri haietako biztanleak Landesetara deserritu zituzten. Jende haren krimena: penintsulako euskaldunekin ahaidetasun, adiskidetasun edo negozioetako harremanak izatea. Kaosaren eta ziurtasun faltaren erdian, Joanto Ithurbide, Jaureneako Gehexanen seme borta, bere sustraien bila dabil, eta baita mendeku bila ere. Mari Harotsenne gazteak, maitasuna bezala, etsipena aurkituko du haren ondoan. Beste pertsonaia batzuek, besteren artean bere herrikideak erbestera bidali zituen Jean-Martin Monduteguy Errepublikako prokuradoreak, edota kontrabandista bihurtutako artzain ohi batek, Gartzia-egiazkoak batzuk eta fikziozkoak besteak-, osatzen dute Euskal Herriaren parte baten aldi historiko gogor baten erretaula.

## **EREIN-EUSKADIKO KUTXA eta DONOSTIA, OPERA PRIMA literatura sariak.** *Gainean dago EREIN sariaren bigarren ekitaldia*

2003. urtean Erein argitaletxeak, Euskadiko Kutxaren eta Donostiako Udalaren lankidetzarekin, EREIN-EUSKADIKO KUTXA eta DONOSTIA, OPERA PRIMA literatura sariak eman zituen, sariketaren lehen edizioari zegozkionak. Sari hauen helburua euskaraz idatzitako literatura bultzatzea da, eta orobat da euskal egileak sustatzea. Sariketa bi urtez behin egiten denez, bigarren saioa 2005. urtean egingo da.

# Behin batean

Ipuin klasikoak dira: 4-6 urte bitartean begiratu, irakurri, ulertu eta disfrutatzeko ipuinak. Gure gizarte zaharreneko istorioak entzunez edo irakurriz sartuko dira umeak eskolan eta munduan.



# Letra magikoa

Lehen mailako idazle puntakoenak idatzitako letra magikoak dira sail honetan aurkituko dituzuenak. 4-6 urte bitarteko umeak esku artean ibili eta irakurtzeko, begiratu eta gozatzeko.

Eskuizkribuan eta letra larriz ageri da testu berbera ezker aldeko orrian eta eskuin aldekoan aldiz marrazkia aurkituko duzue.


Sail berri hau osatzen duten 20 liburuak euskaraz, gailegoz, katalaniaz eta gaztelaraz argitaratu dira aldi berean.

Honako hauek dituzu sail berri honetan aurkituko dituzun izenburu eta egile / marrazkilariak:

- 1.- BITTOR IBILALDI BAT EGITERA. Pasqual Alapont / Armad
- 2.- NI NI NAIZ. Fina Casalderrey / Josep Vicó
- 3.- ITSASO MAITASUNA. Miquel Desclot / Marta Balaguer
- 4.- LAURA ETA SAGUAK. Agustín Fernández Paz / Rocío del Moral
- 5.- BURU MAGIKOA. Josep Antoni Fluixá / Francesc Santana
- 6.- TANIAREN HARTZA. Teresa Gregori / Anna Clariana
- 7.- ZALDIA. Gabriel Janer Manila / Gloria Celma
- 8.- INURRI BITXIA. Mariasun Landa / Pep eta Marc Brocal
- 9.- IGELA. Enric Lluch / Gerard Miquel
- 10.- LIBURUAREN AMETSA. Vicente Muñoz Puelles / Noemí Villamuza
- 11.- LEPOKO BERDEA. Victor Nado / Margarita Menéndez
- 12.- IKUSTEN DUDANA. M. Dolors Pellicer / Olga Perez
- 13.- PIRATA. Teresa Soler / Esperanza Martínez
- 14.- HIRU ADISKIDEAK. Mercé Viana / Xan López Domínguez
- 15.- SORGIN TXOROA. Josep Gregori / Avi
- 16.- KRISTINAREN SEKRETUA. Pasqual Alapont / Alberto Botella
- 17.- RAKEL BELDUR DA. Agustín Fernández Paz / Marina Sesane
- 18.- ROSAREN AMONA. Enric Lluch / Cristina Durán
- 19.- BEGIRA ZER HOTS DUEN. M. Dolors Pellicer / Marie Nigot
- 20.- ZABUETAN. Patxi Zubizarreta / Rebeca Luciani



## SASI GUZTIEN GAINETIK



*Oilo kontakatiluaren istorioa*

**Karlos Zabala**


Orr: 32

Marrazkilaria: Lorena Martínez

Saila: Sasi guztien gainetik, 13

ISBN: 84-9746-207-6

Neurriak: 20 x 20



*Oneka*

**Arrate Egaña**

Orr: 32

Marrazkilaria: Mari Mar Agirre

Saila: Sasi guztien gainetik, 14

ISBN: 84-9746-209-2

Neurriak: 20 x 20

Gizarte kontsumista honetan umeak dene-  
tik daukate eta hala ere aspertu egiten dira;  
izan ere, umeak nahi dutena laguntxo ba-  
tzuk dira jolas egiteko.



*ZERGATIK IRISTEN DA GAUA?*

**Oscar Picazo**

Orr: 28

Marrazkilaria: Idoia Beratarbide

Saila: Sasi guztien gainetik, 15

ISBN: 84-9746-212-2

Neurriak: 20 x 20

## MANDOLINA SAILA



*Zatoz lehenbailehen!*

**Enkarni Genua**

Orr: 48

Urtea: 2004

Marrazkilaria: Jesús Lucas

Saila: Mandolina, 1

ISBN: 84-9746-146-0

Neurriak: 15 x 20

Kanpotik datorren umeari zein  
jarrera ona egin zaion. Gero eta  
gehiago dira gure familietan  
halako umeak.



*Asteburu bat tren zaharrean*

**Javier Muguruza**

Orr: 36

Urtea: 2004

Marrazkilaria: Manu Ortega

Saila: Mandolina, 2

ISBN: 84-9746-147-9

Neurriak: 15 x 20

Gure mutila aspertu egiten zen  
asteburuetan, baina behin tren  
zahar batera eraman zuen  
lehengusuak. Hura aldaketa eta  
poza.



*Aitorrek bi ama ditu*

**Mª Jose Mendieta**

Orr: 38

Urtea: 2004

Marrazkilaria: Jon Zabaleta

Saila: Mandolina saila, 3

ISBN: 84-9746-208-4

Neurriak: 15 x 20

Aitorrek bi ama ditu. Gure  
gizartean gero eta normalagoa  
den egoera bat kontaktzen zaigu:  
ume batek aita eeta ama eduki  
beharrean, bi ama ditu eta horek  
herri txiki batean dakartzkion  
gorabeherak.



*Unax eta hodeitxu*

**Iñigo Muguruza**

Orr: 24

Urtea: 2004

Marrazkilaria: Iñigo Muguruza

Saila: Mandolina saila, 4

ISBN: 84-9746-210-6

Neurriak: 15 x 20

Unax eta Hodeitxu; Hodeiekin  
beste mundu batzuetara bida-  
tzen zuen mutikoaren istorioa.


# Xola eta Angelito

## Holaxe bizi da Xola



*Xola eta Angelito*  
**Bernardo Atxaga**  
 Orr: 48  
 Marrazkilaria: Mikel Valverde  
 Saila: Holaxe bizi da Xola, 3  
 ISBN: 84-9746-213-0  
 Neurriak: 15 x 21

Xola lagun baten baserrira joan da, eta hango txakurraren eraginpean erabat aldatzen da gure Xola sinpatikoaren izakera. Erabat egin zaigu jatortu, hizkeran eta beste...



*Xolak badu lehoien berri*  
**Bernardo Atxaga**  
 Orr: 48  
 Marrazkilaria: Mikel Valverde  
 Saila: Holaxe bizi da Xola  
 ISBN: 84-7568-533-1  
 Neurriak: 15 x 21

*Xolak badu lehoien berri* izan zen bildumako lehen lana eta argitara orduko bereganatu zuen arrakasta. Harrezkero oso ezaguna da gure Xola umeen artean.



*Xola eta basurdeak*  
**Bernardo Atxaga**  
 Orr: 56  
 Marrazkilaria: Mikel Valverde  
 Saila: Holaxe bizi da Xola  
 ISBN: 84-7568-224-9  
 Neurriak: 15 x 21

*Xola eta basurdeak* aurrekoaren harrera beroa inguratu zuen. Euskadi Haur eta Gazte Literatura Saria '97 irabazi zuen.

# Bioleta saila



*Mendekuaren graziaz*  
**Karlos Linazasoro**  
 Orr: 152  
 Saila: Bioleta saila, 3  
 ISBN: 84-9746-192-4  
 Neurriak: 14 x 20,5

*Mendekuaren graziaz:*

“Nire historia frakaso baten eta mendeku baten historia da. Hasieratik utzi nahi nituzke, baina, gauzak argi: ez dut inoren errukirik edo maitasunik bilatzen, are gutxiago oraindik inoren epai kiskaltzailerik. Nork epai ditzala bere ekintzak. Emakume arrunt baten historia kontatuko dut orain. Hara: frakaso poliki-poliki azaltzen da bizitzan, egunez egun; begiak itxi eta ezetz esaten diozu zeure buruari, ate-joka dabilen mamu hori etxez nahastu dela noski, bizilagunen bila dabilela dudarik gabe. Etxe horretan, ordea, zeu zara bizilagun bakar; laster, ordain eske datorren arrotzari atea irekiko diozu, eta eroso-eroso eseriko zaizu besaulkirik ederrenean.

Gurean ere egin zuen habia. Ez nuke jakingo adierazten zerk zapuztu zuen gure harremana. Urteek berek, akaso. Bai, baina ez horrek bakarrik. Nik ez nion bizitzari gauza handirik eskatu: maitasun piska bat, seme bat... Gorputz osoz sakrifikatu nintzen Brianengandik: ez nuen semerik izan, unibertsitateko eskolak emateari utzi nion, ez lagun ez etxe finkorik izateari egin nion uko, berak profesionalki gora, oso gora egin zezan... Uko egite haiek guztiek ez zuten sekula ordainik izan. Nik, hala ere, ez nion inoiz ezer eskatu Briani”.  
 Karlos Linazasoro Tolosan jaio zen 1962an.

Gaur egun, Linazasoro euskal ipuinlari bikainenetakoa dugu.

## Auskalo bumeran

# Yako eta Lurra



*Yako eta lurra*  
**Ixiar Rozas**  
 Orr: 128  
 Marrazkilaria: Iñaki Martiarena “Mattin”  
 Saila: Auskalo-bumeran, 36  
 ISBN: 84-9746-205-X  
 Neurriak: 12,5 x 19

Yako, uharte batean munduratu zen neska, lur bilakatu da. Sua izan zen hasieran, gehiegi berotzen zuen bere gorputzak. Haizeak eramaten zuen ondoren, bere gorputza arinegia bihurtu zelako. Orain lurra tinkoago zapalduko du Aezihan barrena, bere lagunekin batera, bere senitarte berriarekin batera. Eta horrela iritsiko da bere bidaia luzearen bukaerara. Edo beste bidaia baten hasierara. Sua, ura, lurra eta airea denak, sua, ura, lurra eta airea behar dituelako.

## Oroimenean barrena



*Carlotaren egunkari morea*  
**Gemma Lienas**  
 Itzulpena: J. M. Lasa  
 Orr: 160  
 Saila: Oroimenean barrena, 3  
 ISBN: 84-9746-194-0  
 Neurriak: 13 x 22

*Carlotaren egunkari morea* ez da eleberririk bat, ez eta egunkari arrunt bat ere. Carlotak “disidentzia”ren antiojuak jantzi ditu eta hankaz gora jarriko ditu eguneroko bizitzan normaltasun osoz bizi ditugun zenbait egoera eta ikuspegi. Nork asmatu du, esate baterako, maitasun kontuetan gizonezkoei dagokiela lehen pausoa ematea? Zergatik den arrosa nesken kolorea, eta urdina mutilena? *Carlotaren egunkari morea* emakumearen egoera zein den ohartzeko gida errukigabea da. Umerez askotan, amorruez eta inpotentziaz gehienetan, emakumeak bizi duen egoera salatzen du. Dena den, hori hala gerta dadin, antioju moreak jantzi beharko ditu Carlotak.

## Poesia



**BEGI-IKARAK**  
**Felipe Juaristi**  
 Orr: 88  
 Saila: Poesia, 11  
 ISBN: 84-9746-211-4  
 Neurriak: 13 x 20,5

Tristurari aurre eginez, Juaristik (Azkoitia, 1957) lortu du beste liburu bat osatzea eta, gainera, uste du aurre-rapauso handia eman duela: «Hemen artifiziorik ez dago. Aldaketa bat dago hemen. Forma aldetik, espresioa bigundu egin da, baina mezua sakona da. Hitz arruntekin eta irudi sinpleekin, uste dut lortu dudala filosofiaren sakontasuna. Uztartu egin ditut filosofia eta poesia, baina kontzeptu filosofikorik erabili gabe. Hankak mugitu ditut eta salto egin. Beti poema berak idaztea ez da ona. Galderen geografia-tik salto egin dut».

Felipe Juaristiren iritzirako hiru ideia nagusi hauek agertzen dira Begi-ikarak liburu berrian: «Batetik, Rembrandt-en begirada, bestetik nire mina; eta gainera, kolore urdina».

Juaristik uste du pintore hark lortu zuela infinitua harrapatzea: «Spinozak frogatu zuen zer den infinitua: ez iraganik ez gerorik ez duen oraina. Eta Rembrandtek momentu huts horiek harrapa-tzen dituenean infinitua harrapatzen ari da».

## Unidad de España y juicio ético




**Unidad de España y juicio ético**  
**José M<sup>a</sup> Setién Alberro**  
 Orr: 96  
 Saila: Saiopaperak, 8  
 ISBN: 84-9746-198-3  
 Neurriak: 14 x 22,5

Eta «El hecho de que la defensa de la unidad de España se plantease ante el acoso que a la misma puede provenir de agresiones de carácter nacionalista, obliga a hacer una ulterior delimitación absolutamente necesaria, si se quiere situar bien el problema y, en consecuencia, tratar de hallar las vías acertadas de su solución. Se hace, en efecto, necesario distinguir y separar el tema del Nacionalismo en sí, del tema de la violencia y, en particular, del tema de la violencia terrorista. O, si se quiere, concretando mejor el problema, no debe confundirse el problema que a la unidad de España puede plantear el Nacionalismo, con el planteado a España por el terrorismo. De no hacerlo así, se caería en el error doctrinal e histórico de hacer del Nacionalismo, por su propia naturaleza, un fenómeno político-social inseparablemente unido al terrorismo. Sin que haya de excluirse la hipótesis de que esa identificación artificialmente creada, pueda ser históricamente el resultado de una intencionalidad política cuyas motivaciones y raíces no se deben ignorar».

*José M<sup>a</sup> Setién Alberro.*

## Iharduera fisikoa eta ohitura osasuntsuak nerabezeroan



**Bost urte, bizitza osoa**  
**José Manuel González Aramendi,**  
**Lourdes Sarría Urigüen,**  
**Santiago Coca Fernández**  
 Orr: 352  
 ISBN: 84-9746-216-5  
 Neurriak: 17 x 24

Nolakoa da gaur egun gure seme-alaben nerabezaroa? Nola bukatuko ote dute bizitzaren aldi garrantzitsu hau? Nolakoa izango da hamar urte barru nerabezaroa?

Drogazaletasun, sedentarismo, bortxakeria eta sexualitate oldarkor batetik eratorritako traumei buruzko datuak benetan beldurgarriak gertatzen dira... eta, epe laburrera behintzat, ez dirudi horiek guztiak hobera egin behar dutenik. Oinarrizko eta premiazko eginkizunetan dugun jokamoldeaz hausnarketa sakona egiteko nahiko motibo badugu.


Guraso bezala, gure seme-alabak osasuntsu, trebe eta zorionsu haztea nahi dugu. Eta, gizarte gisa, gaztaro fisiko-

ki, mentalki eta sozialki osasuntsua behar dugu, gaztaro trebatua eta solidarioa, guk ondo egin dugunari bultzada berria emateko gai izango dena.

Honela dio Alvin Tofflerrek, gaurko unibertso intelektualeko ahots nagusietako bat denak: «Aldaketa izugarritzko garai batean, gure etorkizunari buruz galderarik zabalenak egitea ez da jakin-min intelektualezko auzia huts-hutsik. Iraupen auzia da».

Liburu hau hezkuntza fisikoan eta jarduera fisikoan barneratzen da apur bat, bata zein bestea bizitza estilo osasuntsu eta orekatu baten funtsezko osagaiak direlakoan. Ozta-ozta bustitzen ditu oinak erronka eta aukeratu beharreko posibilitateetan.

## Gaztearen prestakuntza orientazioa



**Zer ikasi**  
**Teófilo Solana**  
 Orr:  
 ISBN: 84-9746-202-5  
 Neurriak: 17 x 24

Lehenbiziko lanpostua bilatzeko unean iristen zaienean, gazteek oso mundu zabala eta zaila topatzen dute, bi arrazoiengatik batik bat: egindako ikasketen araberako lanbide bat aurkitzeko lan merkatuaren eragozpenak; eta lanbideen benetako eskakizunak, ikasketen bidez jasotako ezagutzan ez ezik, pertsona bakoitzaren berezko gaitasunetan ere oinarritzen direnak.

Batzuetan, lanbide baterako behar den ezagutza izanik ere, gazteak beren gaitasunak lan horretarako ez direla egokiak ohartzen dira, edo, alderantziz, berezko gaitasunek lanbide batera bideraturik, egindako ikasketak ez direla behar dituztenak ikusten dute.

Ez dago gai honetan asmatzeko erreze-ta edota formula zehatzik, baina lanbide orientazioak ekar ditzakeen hutsegiteak gutxitzen saia gintezke, inoiz gertatu ohi diren hutsegite nabarmenak ekiditeko bereziki, pertsona baten lanbide bizitza osoa eragozten dutenak hain zuzen.

Lan hau egileak bere lan urteetan zehar bizitutako egiaztapenetan dago oinarritua. Ez da, hortaz, gai honi buruzko teoriaren adierazpena; aitzitik, egiazko bizi-pen horietatik ateratako arrazoibideen antolamendu egituratu bat da, gazteei eta gurasoei laguntzeko egina, lanbide inguru eta ikasketa egokienak aukera ditzaten.

# Itzalak Iban Zaldua



*Itzalak*  
Iban Zaldua

Orr: 176  
Saila: Narratiba saila, 52  
ISBN: 84-9746-203-3  
Neurriak: 13 x 20,5

«Ohetik jaiki bezain pronto kontatu nahi izan zidan. «Ba al dakizu zer amets egin dudan bart? Abandonatzen ninduzula; beste emakume batekin elkartzen zinela. Ez nuen ezagutzen, baina jakin badakit ni baino gazteagoa zela. Umeak zurekin gelditzen ziren, noski, eta, ondorioz, etxetik alde egin behar zuena neu nintzen. Pisu konpartitu batera joan nintzen bizitzera». Irribarre egin nuen, zer bestela: beti egin dit grazia Arantzaren amesgaiztoen zehaztasunak; ni ez naiz sekula akordatzen neureez. «Eta norekin joaten zinen bizitzera, jakin ba daiteke?», galdetu nion. «Nekanerekin. Senarrak utzi berria hura ere». «Nekanerekin? Ez duzu apenas ezagutzen ba». «Bai, niri ere bitxia iruditu zait. Baina badakizu nolakoak diren ametsak», erantzun zidan. Haien bien etxebizitza berria deskribatu zidan ondoren, altzariak eta guzti. «Ba al dakizu, ordea, zerk izorratu ninduen gehien, ametsean? Ez zenidala ezer kontatu zure azkeneko liburuaren eskuizkribua zuzentzen amaitu nuen arte». Hori egia da: nekez aurkituko dut nire testuen irakurle hoberik, emaztea baino. Une horrek besarkada bat eskatzen zuen, eta besarkatu nuen Arantza, nola ez. «Nolako gauzak amesten dituzun, neska...», esan nion belarrira».

Nekanez ez zuen txintik atera: eskua mesanotxerantz luzatu eta beste zigarro bat hartu zuen, eta txiskeroa. Keinu bizkor batez piztu zuen. Trinkoagoa egin zen logelako kea.

Isilunea ez zen oso luzea izan. «Noiz kontatu behar diozu gure artekoa Arantzari?», bota zidan, espero nuen bezala. «Laster», erantzun nion Nekaneri, «oso laster. Nire azken liburuko kontrazaleko ipuina zuzentzen didan bezain laster».

## Pello Lizarralde

Ez naiz Iban Zaldua famatzen hasiko, ez baitu horren beharrik. Iban Zaldua irakurlea nabarmendu nahi nuke, ordea. Edozeinek aitortuko du idazleak irakurzale izan behar duela lehenik, baina nago paradoxa handi samarrea murgilduta bizi garela eta idazleen artean askotan ez dagoela literatura-zalerik.

Iban Zaldua oso idazle fidagarria zait, besteak beste, literaturaren gaitzak jota dagoelako. Ez du aurrejuzkurik eta orojalea da. Ez dio beldurrik anatema literarioari eta iritzia lotsarik gabe, eta iraindu gabe, emateko ohitura errotua dauka. Berdin jipoituko ditu poesiaren zera mistikoaz erakustaldiak egin nahi dituztenak edota komikiaz mesprezuz jarduten dutenak.

Irakurleak egindako bideak ekarri du idazlea. Iban Zalduak garai bateko ziklistak ekartzan dizkit gogora. Lemond zekenak Fignoni Parisen irabazi zionean hasi zen ziklismoaren gainbehera, eta literatur-

gintzan agenteak sartu zirenean esanez noiz, non eta zer idaztea komeni zen. Ibanen liburuetan, aitzitik, oxigenoa dago, ugari. Hiru minutu galdu edo hiru irabazi beti berdin ibiliko da, gozatu egiten baitu; ez dago bestelako dohain misteriotsurik, berak gozatu eta berarekin batera irakurleak.

«Itzalak» izeneko bilduma honetan bi idazle ikusten ditut nik. Alde batetik, beste batzuen liburuekin liluratuta dagoena. Idazle horrek jolas aski serioei ekiten die; badaki berak irakurritako liburu guztiak liburu bakarria direla eta zulo eta sarbide asko dituztela eta edozeinetatik jo dezakeela barrenera, orain denak bereak baitira, eta gero beste batenak. Dena den, Ibanen jolas hauek tan erne egotea komeni da, jolasak bukatua dirudienean zerua bat-batean estaltzen baita eta hotzikara batek astintzen dizu bizkarra. Oroitzen naiz txikitik ipurgaineko hezurrean kolpea hartzen genuenean lurrean etzanda geratzen gine-la erdi barrez erdi negarrez, zer egin ez genekiela. Antzeko

zerbait eragin lezake narrazio hauek ere.

Beste idazleak erabat kanpora eginga du begiratu; begiak jira guztian botatzen ditu, jakitun baita aspaldian iritzia ez dela uste bezain urrun iristen eta fikzioa hobesten du zoko ospelentan sartzearen, eta, orduan, argi eta ilun guztiak bildu eta tinta odolduaz ematen ditu argitara.

Izenburua da lehen atea. Itzalak. Analogia eta irudi ugari ekar nitzake, baina nik uste berriz ere itzalak bi zakutan heldu direla. Liburuetakoa da lehena, orrialde pasatu berriak aurrekoa estali arte zabaltzen duena. Atzean utzitakoa, itzal horrek estalitakoa, ez dago jakiterik norik askatuko duen lozorrotik, paperezko hilobitik. Agerikoa da, ordea, inork eramatekotan irakurleak eraman beharko duela orria argitan eduki duen bitartean iritsi zaion hori.

Gero beste itzalak daude. Jendearnak, pertsonaiarenak nahi baduzue. Elkarrengana inguratzeko eta elkarrengandik urruntzeko egiten dituzten

saioretan nahastu eta katigatu egiten zaizkie itzalak, txikiak eta handiak, ongi zehaztuak eta ikusezinak; eta itzalak elkar joka hasten dira, eta nahasmentu horretan itzal bakarria sortzen da azkenean, eta karga bera du denentzat.

Hala ere, bilduma honetan ez dago etsipenik. Narrazioen arrakaletan irribarre ugari dago, eta atze-atzean, baina antzemateko moduan, barre ozen eta ilun bat.

Etsipena zalantza guztiak bukatu direnean nagusitzen da. Zalantzak amaitzen direnean ez da libururik egongo, nahiz eta liburu itxurako objektu batzuk argitaratu. Liburu honetakoak zalantzek ekarritako narrazioak dira. Eta egileak badaki zaila dela, oso zaila askotan, itzalaren igurtzi hezea saihestea, baina zirrikituak behar ditugu denok. Horregatik nik pasioak jotako liburu emankorrak maite ditut, zuzenean beste liburu batera eramaten nautenak. Eta «Itzalak» horietako bat da.

*(Iban Zalduaren «Itzalak» liburuaren aurkezpenen ekitaldian irakurria).*

# Narratiba



*Txikira beti hordago!*  
**Bertol Arrieta**  
Orr: 152  
Saila: Narratiba, 50  
ISBN: 84-9746-195-9  
Neurriak: 13 x 20,5



*Zirkulua*  
**Andoni Urzelai**  
Orr: 184  
Saila: Narratiba saila, 51  
ISBN: 84-9746-196-7  
Neurriak: 13 x 20,5



*Panpinen erreinua*  
**Mikel Hernandez Abaitua**  
Orr: 112  
Saila: Narratiba saila, 53  
ISBN: 84-9746-206-8  
Neurriak: 13 x 20,5

Bertold Arrieta (Zarautz, 1975) informatikaria da eta Euskal Herriko Unibertsitatean ari dalanean, irakasle. IXA taldeko kidea da

Paris, Amazonas, Ingalaterra, New York... eta Bilbo.

Sam, Betty Boop, Oswaldo, Marie... eta Margarita.

Piano etzan bat, metro-geltoki bat, abestiak, malakoak... eta irribarreak, algarak.

Amodioa, desamodioa, erotismoa... eta utopiak.

Elkarren antzik ez duten zazpi ipuin.

Zazpi ipuin eta bostehun leiho.

Zazpi ipuin eta ehun mundu berri.

“What a Wonderful world” ipuinarekin “Donostia Hiria” ipuin lehiaketa irabazi zuenduela bi urte. Ipuin ederra da. Polita eta aldi berean irribarre triste bat eragingo dizuna.

Eta ezagutzen dugun munduaren azpian beste bat balego? Eta ezkutuko mundu hau begi-bistan daukaguna baino anker, beltz eta siniestroagoa balitz?

Zerk motibatzen du pertsona bat beste bat hiltzera?

Areago, zerbaitek justifikatzen al du erailketa bat?

Zer gertatuko litzateke bitarteko etiko minimoenak ahaztu, eta Estatuko indar boteretsuenak euskal abertzaleen aurka ekiteko batuko balira?

Zerbitzu sekretuek ETA-rekin behin betirako amaitu nahi dute. “Big bang!” operazioak Euskal Herriko kaleetan izua barreiatzea du helburu. Hor du abiapuntu eskuartean daukazun nobelak. Hortik aurrera, intriga... traizioa... tentsioa...

Zirkulua nobelak, irakurlea paparretik heldu, eta ikusi nahi ez lukeen mundu batera eroango du: telebistaren xarmak itsututako gizagaixoen mundura, interes politiko zein pertsonalen aitzakian edozer egiteko prest dauden mundura...

Mikel Hernandez Abaitua Gasteizen jaio zen 1959an. *Ispiluak* (1985), *Etorriko haiz nirekin?* (1991), *Bazko arrautzak* (1995) eta *Ohe bat ozeanoaren erdian* (1992) dira egilearen beste liburuak.

Panpinen erreinua 1983. urtean argitaratu zen lehen aldiz, euskal ipuin modernoaren urrezko hamarkadan, eta urte asko iragan diren arren, ez dute freskotasunik galdu bertan agertzen diren kontakizunok. Estilo ezberdinak lantzen dira liburua osatzen duten bost ipuinetan, xehetasunak maite dituen errealismotik fantasia alegorikoraino, umore jostalaritik tristura hunkigarri-raino.

Bigarren edizio honetarako, narrazio bat bezala irakurtzen den epilogo autobiografiko luze bat idatzi du autoreak, non ipuin hauek idatzi ziren garaia islatzen den.

## Pako Aristi, *Gauza txikien liburu handia*



*Gauza txikien liburu handia*  
**Pako Aristi**  
Orr: 168  
Saila: Bakanak, 2  
ISBN: 84-9746-204-1  
Neurriak: 15 x 21,5

Denboraz eta patxadaz landutako 63 pieza txiki daude liburu honetan: ipuinak, poemak, gogoetak, saiakerak... Fikzioa eta kronika, biak nahastu ditu maisuki idazleak, bizitzaren bidaia luzea hobeto ulertzeko, eta bidaia horretan irakurleei gozatzeko laguntzeko asmoarekin.

Hain pertsonala den bere ikuspegitik idatzi ditu idazleak testu hauek, betidanik hain berezia iruditu zaigun bere sentiberatasun dotore hori erabiliz. Testu biziak dira, lerro landuak, bakarka eta banaka irakurtzekoak, baina denen artean liburuari sakontasun liluragarri bat eransten diotenak.

Gauza txikiekin lan eginez idazle handia izatera iritsi da Pako Aristi azken urteotan, inork uste ez duen tokitik literatura ateratzen dakielako. Haren hainbat artikulu antologikoak bihurtu dira. Eta orri hauetako samurtasun zorrotza ere laster gogoangarri bihurtuko da irakurleen oroimenean.

‘Baina liburu hau nola definituko zenuke?’, galdetzeko amorratzen egongo zarete dagoeneko. Nire hitzak orain arte arretaz entzun (edo irakurri) dituzuenok dagoeneko asmatuko zenuten bezala, nire liburua negar eginarazi nahi diodan gaita bat da. Eta agian gaur egun ezertarako balio ez duen zerbait da.

Liburu honek ez dauka suspenserik.

–Oi! Bekatu larria! –esan dit editoreak.

Liburu honek ez dauka erritmorik.

–Oi! Hutsune larria! –esan dit dendariak.

Liburu honek ez dauka erotismorik.

–Oi! Akats larria! –esan dit lagun nerabeak.

Liburu honek ez du dirurik emango.

–Ene ba! Orain ere horrela al haiz? –esan dit amak.

Liburu honetan ez da ezer gertatzen.

–Beno, aurrerago erosiko diat! –esan dit best-seller zaleak.

Hala ere, ez zaitezte nitaz erabat fio, idazlea omen da eta bere liburua gutxien ezagutzen duena. Behin, institutuan zebilen lagun bati ‘Kcappo’ nire nobelari buruzko lan bat egin nion, bost folio sakon idatziz. Justu-justu aprobata zuen; sei bat jarri zioten, ‘Ongi’ besterik ez. Guk liburuan jarri nahi genuena eta liburuan agertzen dena leize sakon batek bereizten ditu gehienetan, zulo hori nola edota zergatik gertatu den ez dakigularik.

Beraz, agian liburu honek balioko du zerbaitetarako. Zeren liburu honetan gauza asko baitago: filosofia pixka bat, poesia, narratiba, saiakeratxoak, aitormentak, semiotika, Euskal Herriko gatazka konpontzeko errezetak...

Zuei dagokizue, kazetariok, liburu honek zertarako balio dezakeen irakurleari iradokitzea. Eta zuek, irakurleok, jakin beharko duzue, eskuetara jadanik erremediorik gabe (erosi egin baldin baduzue behintzat) iritsi zaizuen liburu honekin zer egin.

## Narrativa



*Las buenas palabras*  
**Pako Aristi**  
Págs: 328  
Año: 2004  
Colección: Narrativa  
ISBN: 84-9746-174-6

La novela cuenta la vida de un pueblo que amalgama modernidad y tradición. Mientras la taberna pone voz a los relatos que colorean la historia profunda del país, el *pub* acoge en su regazo la juventud y el amor vaporoso de la nocturnidad. Entre una realidad salpicada de tradiciones e historias primarias, por un lado, y el *hachis* y los ligues, por el otro, se entretiene la discreta aventura amorosa entre Fermín y Luisa, testigos directos de las secuelas que ha ido sedimentando en la memoria del pueblo la droga y el sida.

## Dianea & Koplak



*Dianea & Koplak*  
**Joan Perez de Lazarraga**  
–Patri Urkizuren edizioa–  
Orr: 400  
Saila: Euskal kultura  
ISBN: 84-9746-197-5  
Neurriak: 17 x 24

Joan Perez de Lazarraga (Larrea 1548 (?)-1605). Ez dakigu oraingoz gauza handirik garaikideek El Poeta bezala izendatzen zutenaren bizitzaz. Etorkia Oñatiko Lazarragatarengan zuela, Araban jaio zela, gurasoak Pedro Perez de Lazarraga eta Elena López de Erdoñana izan zirela, 1567an Madriden izan zela gortean, agian bertan lizentziatu zela, eta Katalina González de de Langarikarekin ezkondu zela. Utzi zituela hainbat eskuzkribu, hala nola, Tratado de una Relación... (Madridenteko Liburutegi Nazionala, MS 11263/7), non bere familiaren genealogia kontatzen duen. Baita Historia de Alava, eskuzkribu luzea, non moldiztegiratu agiriez ziurtatzen zuen bere historia, galdua dena eta agian bertako parte zen eta hemen aurkezten dugun euskarazko Dianea eta Koplak. Joseba Lakarraren hitzetan, eskuizkribuaren aurkikuntza euskal testu tradizioan eta euskal kulturaren oro har, aspaldian izandako ez eze amestutako garrantzitsuen dugula esatean ez da arrisku larrik... Zeren historian zehar izan dugun lehen euskal nobelistaren aurrean baikaude, bere Dianea, -edo gelditzen zaiguna idatzitakotik-, arabera gazte batek Montemayorrenarenetik buruturiko imitazio laburra delarik. Bestalde, Lazarraga gazteak moldatu zituen Koplak eta beste poemek, garaiko kantutegietako ildotik doazelarik, aurrerantzean kriseilu berri eta distizari baten gisa argituko dute Errenazimenduko Euskal Literatura.

## “Otra” historia de la literatura vasca



*Historia de la literatura vasca*  
**Iñaki Aldekoa**  
Orr: 328  
Saila: Euskal kultura  
ISBN: 84-9746-215-7  
Neurriak: 17 x 24

“Es este amplio territorio el que circunscribe el tratamiento que a los diferentes autores, movimientos y tendencias da Iñaki Aldekoa en su *Historia de la literatura vasca*. Sin presumir de ello, pero también sin complejos. Reconociendo la modestia de una literatura como la vasca -entendiendo por tal en este caso la escrita en euskera-, en un ejercicio rico y riguroso de lo que hoy llamaríamos un juego de intertextualidades, deja claro de manera muy brillante cuáles son las referencias que, explícita o implícitamente anuncian su presencia en la escritura literaria vasca.

Esta *Historia de la literatura vasca*, muy bien escrita por cierto, cosa que no podría decirse de otras que la han precedido, deja bien patente la mayoría de edad de una literatura que, en su modestia, ha sabido, y a veces con verdadero acierto, ponerse al día de lo que es y quiere ser hoy la literatura en el ámbito de nuestra cultura occidental.

Aldekoa ha sabido acertar con el tono exacto para dar a los estudiosos y a los interesados por la literatura vasca una visión exhaustiva -el estudio llega hasta el año 2000- del camino que ha recorrido la literatura en euskera, en el tiempo, más corto que en otras literaturas, es cierto, la escrita en nuestra vieja lengua.

Ha merecido la pena el esfuerzo de Iñaki Aldekoa. En su historia se recoge y se sintetiza el abundante trabajo monográfico realizado a lo largo de muchos años, y se hace una valiosa y decisiva aportación, por su rigor, su novedad, y la riqueza de visión, a la historiografía literaria vasca”.

*Txuma LASAGABASTER*

“Iñaki Aldekoa reúne en este libro todo aquello (y sólo aquello) que el lector culto de lengua española debe conocer sobre literatura vasca”.

*Ibon Sarasola*

## Gernikatik New Yorkera Berlinetik pasatuz



*Gernikatik New Yorkera Berlinetik pasatuz*  
**Jose Antonio Agirre**  
**Juan Jose Ibarretxeren hitzaurrea**  
Orr: 328  
ISBN: 84-9746-218-1  
Neurriak: 17 x 24

*Gernikatik New Yorkera Berlinetik pasatuz*, aurreneko aldiz 1943an argitaratua, Euskadiko lehen lehendakaria izan zen Jose Antonio Agirrek erbesteratu ondoren egin zuen bidaiaren kontaketa pertsonala da. Bidaia honek nortasun klandestinoak erabiltzera eta era guztietako eragozpenak gainditzera behartu zuen, harik eta Hego Amerikara heldu zen arte, bertan heroizat hartu baitzuten. Obra hau, beraz, bidaia baten egunerokoa da, eta,aldi berean, bere herriaren kausari emandako politikari baten hausnarketa etengabea.

Orain, egilearen jaiotzaren lehen mendeurrena betetzen den honetan, liburu honen irakurketak, bere testuinguruan txertatzen duen sarrera batez eta gaurko lehendakari Juan Jose Ibarretxeren hitzaurre batez horniturik, ez gutxiri, dirudienez, oraindik ere traba egiten dien Historia baten errealitatea berreskuratuzeko aukera ezinhobea gertatzen da.

**Jose Antonio Agirre y Lekube** (Bilbao, 1904 – París, 1960). Euskal politikaria. Urduñako Jesuitetan egin zituen ikasketak, eta abokatu gisa lizentziatu zen Deustun. Gaztetan Bilboko Athletic Clubeko kide izan zen. 1929an Esteban Bilbaoren abokatu bulegoan hasi zen lanean, eta geroxeago bere familiaren jabetza zen Chocolates Bilbaínos lantegian, aldi berean bere bulegoa zuela Bilboko Parte Zaharrean. 30eko hamarraldia- ren hasieran oso eginkizun garrantzitsua bete zuen Bergarako birbateratze nazionalistan. Lehenbizi zinegotzi hautatu zuten, eta Getxoko alkate gero. Geroago Espainiako parlamentuko diputatu aukeratu zuten, eta askoren ustez hura izan zen Estatutuaren aldeko udal mugimendua sortzeko ideien bultzatzaile. Pixkana-pixkana prestigioa irabaziz joan zen, harik eta Lehendakari aukeratu zuten arte, 1936an Estatutua onartua izan ondoren. Errepublikak garaitua gertatu zenean, erbestera joan zen, eta han hil zen arte eutsi zion lehendakaritzari (1960).

Bere lanen artean *Entre la libertad y la revolución, 1930-1935* eta *Cinco conferencias pronunciadas en un viaje por América* nabarmenduko ditugu.